

# PATXI LARRAÑAGAREKIN SOLASEAN

Jon Bagüés

Para los renterianos que no conozcan la trayectoria profesional de Patxi Larrañaga Domínguez bastarán unas breves pinceladas para percatarnos de la rica, y pese a su juventud, diversa biografía del artista.

Nace en Erreterria en 1963. Realiza, compatibilizándolos, estudios de arquitectura y música (piano, composición). Miembro fundador del grupo de composición "Iruñeako Taldea". Ha sido pensionado de música en la Academia de España en Roma (1990). Profesor de Historia de la música en los conservatorios de Tarazona y Cáceres. Jefe de actividades culturales del Instituto Cervantes en Roma y más tarde Técnico de Música, Teatro y Danza en la sede central de Madrid. Ha sido editor del anuario Cuadernos de Veruela y ha ejercido la crítica y el ensayismo musical. Actualmente es director del Centro de Tecnología del Espectáculo del Ministerio de Cultura.

Patxi Larrañaga Domínguezen ibilbide profesionala ezagutzen ez duten erreteriarrentzat aski izango dira ohartxo batzuk artista honen gaztetasunak esperaraziko ez lukeen biografia aberats eta ugariaz jabetzeko.

Erreterrian jaio zen 1963an. Arkitektura eta musika ikasketak (pianoa eta konposizioa) uztartu zituen. "Iruñeako Taldea" musikagile taldearen sortzaileetako bat izan zen. Espainiako Akademiaren pentsioduna izan zen Erroman (1990). Tarazona eta Cácereseko kontserbatorioetan Musikaren Historia irakasle izan zen. Cervantes Institutuko jarduera kulturalen buru izan zen Erroman eta, aurrerago, Madrileko egoitzan, Musika, Antzerki eta Dantza teknikari. Cuadernos de Veruela urtekaria argitaratu du eta musika kritikan eta saiakeran jardun du. Gaur egun Kultura Ministerioko Ikuskizunen Teknologiako Zentroko zuzendari da.

*Musikagile, arkitekto, irakasle, gestore,...*  
*Hauen arteko ofizioen batekin bereziki identifikatzen al zara? Ala konpatibleak dira?*

Gaztetan denerako denbora zegoela uste nuen, denok bezala. Bizitzak erakutsi dit hemen bazabiltza ezin zaitezkeela han ere egon. Baina ukazina da jasotako ikasketa guztiak eta egindako lan guztiak ere halako nortasun bat erakitzen dutela. Lanari ekiteko momentuan aurretik ezagutu eta egindako guzia dabilkizu neuronatan. Horretaz gainera, oraintxe egiten dudan lanean –antzerki teknikarien eskola baten zuzendaritza– aurrez ikasitako guztia erabil dezaket lehenengo aldiz. Bai arkitekto bezala jasotako formazio tek-

nikoa, bai alderdi artistikoa eta baita antolaketa abileziak ere.

*Zure aitaren enpresak Eduardo Txillidaren "Haizearen orrazia" eskulturen galdaketa egin zuela badakigu. Zure kasuan etxeko giroaren eraginik jaso al duzu?*

Nork ez du etxeko giroaren eragina izan? Etxean beti era guztietako estimuluak jaso nituen eta, are gehiago, nire edozein aukera aurrera eramateko laguntza sendoa ere bai. Adinak erakusten dizu zein puntutaraino diren garrantzizkoak lehen urteak. Gurasoek nire hezkuntzan erabilitako gogo eta indarrak orain ikusten ditut argi.



Nire ibilerak direla-eta, urte batzuetan nahiko urrundu nintzen etxekeogandik, baina bizitzak berriz ere hurbildu eta, nola edo hala, nire eskerona agertzeko aukera eman dit. Txillidaren aipamena ez da hutsala. Nire pertzepzio estetikoaren funtsean beti musika egon bazen ere, etxean maiz zebiltzan bere diseinu eta maketek begiak ireki zizkidaten ikusmenaren estetikarako. Musikarantz bideratzearen arrazoia ere etxean dago: abertzaletasunak eraginda jarri zuten mutikoa txistua eta dantza ikasten. Eta gauzak nola diren, urte asko igaro ondoren, dantza ere nire ogibide eta interesen esparruan agertu da eta, dantzarien lana ulertu eta epaitzeko orduan, Ereintzan jasotako esperientzia haiek nire gorputzaren memorian artxibatuta topatu nituen.

*Erreneriako ikastolako zure kurtso berezi hura, noizbait aztertzea komeni litzatekeena, eten gabeko erretroelikadura intelektuala, edo ingelesez esaten den "feed-back"-a, al zen?*

Nik ez dut uste gizakiak elkarrengandik oso desberdinak direnik. Aitzitik, uste dut denok funtsean berdinak izatea giza errealitatearen ezaugarririk garrantzitsuenetako bat dela. Beraz,

ezin dut pentsatu kurtso hura mirari estatistiko bat zenik eta gainontzekoak baino azkarragoak izan gitezkeenik. Desberdintasunaren iturria beste nonbait bilatu beharra dago eta Orereta Ikastolaren garai hartako planteaketa didaktikoan jarriko nuke. Noski, orduan ez ginen konturatzen, baina irakaskuntza osoa bi zutaberen gainean oinarritzen zen: ikasle bakoitzaren ardura pertsonala eta taldeak ezarritako helburuekiko norberaren mendekotasuna. Ikastolako antolaketa gure aitak ere parte hartzen zuen eta oso argi daukat gogoan ekintza didaktikoak zein arduaz lantzen ziren irakasle eta gurasoen artean. Egunero sentitzen ditut nire baitan abangoardiako sistema horrek eskainitako mota guzietako errekurso pertsonalak. Adibide bat jarriko nuke: 1974 urtearen inguruan edo, irakasleek txikle jatea debekatu ziguten. Erantzun bezala, ikasleak batzarrean bildu (10-14 urteko ikasleak!) eta irakasleei erretzea debekatu genien. Ba al dago gaur egun inon horrelako autogestio adibiderik? Giro horretan pertsonalitate bereziak askatasunez bilakatzea ez da harrizkoa.

*Arkitektura, artea, literatura, musika eta orain, antzerkia. Ikusle bezala, hauetako zein daukazu gustukoena?*

Arkitekturarekiko oso begirada kritikoa daukat. Publikoak gehien ezagutu eta miresten dituen eraikin espektakularrak ikuspuntu moraletik arbuiagarri iruditzen zaizkit. Aireportuko terminalen sabaiek bospasei metroekin nahikoa badute, zer arrazoi dago hamabost metroko altuerak eraikitzeke? Gure gizarteak (eta gure gizartea planeta osoa da orain) ez al dauka hau baino behar dramatikoagorik? Arkitektura ekonomia eta politikarekin lotuegia dago bizi ditugun neoliberalismoko garai hauen zikinkeriaz ez lohitzeko. Noski, beste era bateko tendentzia asko dago, baina ezkutaturik geratzen dira fenomeno hauen lilurarekin. Aipatzen dituzun gainontzeko arteei dagokienez, generoak gainditzen dituzten proposamenek erakartzen naute batez ere; antzerkia, dantza, musika eta ikus-entzunezkoak fusionatzen dituztenek.

*XX. mendearen bigarren zatiko musikagile ospetsuenak izan dituzu irakasle. Horietakoren bat gogoratzen al duzu bereziki?*

Egia esan, musikagile ospetsuak ezagutzea curriculumajantzi eta banitatea zertxobait puzteko ondo dator. Baina, azken finean, gertuen izan dituzun maisuek uzten dizute aztarna sakonena. Nire lehen pausoak José Luis Ansorenaren itzal luzeak babestu zituen. Donostiako Kontserbatorioan Medina eta Marcok eragin handia utzi zidaten,



musikara hurbiltzeko zuten estilo pertsonalarengatik, batez ere, eta Escudero zenaren adibidea urte asko igaro ondoren ulertu dut. Gero, Iruñean, Pascual Aldave nirekin intelektualki oso eskuzabala izan zen eta ziur aski berak uste duena baino arrasto handiagoa utzi zidan. Ramón Barceren ikasle eta lagun izateari ere izugarritzko balioa ematen diot, baina nire maisua –hitzaren zentzu osoan– Agustín González Acilu altsasuarra izan da. Sormenaren etikari buruz berak esandakoak behin eta berriro etortzen zaizkit burura. Baina ezin ahaztu garrantzi handiena hasiera-hasieran izandako irakasleek dutela beti: Ereintzako Olegario eta Oliveri, eta Madalena kaleko Mari Paz en eskutik egindako lehen pausoak dira nire haurtzaroko oroi-pen bizienetakoak.

*Badira urte batzuk konposizioa baztertua daukazula. Pizgarri faltagatik ala joan den etapa bat delako?*

Musika garaikide izenaz ezagutu dugun generoa hila dagoela uste dut, eta denbora eta indar asko erabili ditut fenomeno hori ulertu eta argitzeko. Ezin nuen, koherentzia apur bati utsita, bide horretan jarraitu. Musikaren sorme-

na beste bide batzuetatik doa: hemen azaltzea luzeegia litzateke baina denon begien aurrean dago azken belaunaldiengan abangoardia deitu dezakegunak orain dela hogeita hamar urteko abangoardiarekin zerikusirik ez duela. Hura hautsez betetako akademia bihurtu zitzaigun. Gaur egun ikus daitezkeen tendentzietan arte desberdinen arteko fusioarenak erakartzen nau batez ere. Antzerki muntaietan musika alderdiez arduratzen naiz noizean behin, besteen musikak nahastuz. Halako batean neronen sormena norabide horretan abiatuko dela uste dut. Hau guztia gaseoso samarra geratzen da horrela esanda eta, gauzak pixka bat zehazteko, asko errespetatzen ditudan bi izen aipatuko nituzke nire aukerak nondik joan daitezkeen ulertzeko: Carles Santos eta Llorenç Barber.

*Musikari buruz idaztea errazagoa al da musika bera sortzea baino?*

Ez. Azken finean sormenaren legeak berdinak dira eremu guztietan. Kritika edota saiakera idazterakoan, formak edukiak duen garrantzi berbera dauka. Pentsamenduaren historian garrantzi handia izan duten idatziek bere eragina bikoiztu zuten

esaten zutenaz gain ia beti forma literario bikaina ere bazutelako. Bestela esanda: musikari –edo edo-zeri– buruzko ideia emankorrena ere forma egokiz modelatzen ez bada, herren geratzen da.

*Fikzioko literaturak ez al zaitu erakartzen?*

Bai. Urteak dira ideiak darabiltzadala buruan. Azkenaldian literatura dramatikoak erakartzen nau gehiago. Baina hauek intentzioak besterik ez dira eta intentzio hutsak jakinaraztea banitatearen lotsagabekeria da soilik.

*Zertan geratu da arkitektura?*

Sormenaren aldetik ez dut inoiz landu baina, musikak bezala, formazio horrek munduarekiko begirada aldatzen dizu. Errealitatea ulertzeko modu bat da arkitektura. Zentzu horretan pozten nau horretan hainbeste urteko lana egin izanak. Izan ere, eta arte guzietan konkretuari lotuena delako, oso mesedegarri suertatu zait musikak duen lukubrazio abstraktueta galtzeko arriskua orekatzeko.

*Antzerkiko zein arlo interesatzen zaizkizu gehien?*

Lehen esan bezala, fusiozko esperientziak. Testu antzerkiari garrantzirik kendu gabe, noski. Egun hauetan, adibidez, Achille Campanileren komedia batzuk irakurtzen aritu naiz eta azken boladako plazerik finena izan dut. Baina batez ere interesatzen zaizkidanak testua, gestualidadea, musika eta soinuaren erabilera eta, orokorrean, edozer espresio bide bateratzen dituzten proposamenak dira: Rodrigo García, Olga Mesa... Euskaldunik ere badabil horretan. Azken urteetako performance interesgarrietako bat Asier Zabaletaren *Ego-tik* izan da. Lehen aipatutako Carles Santos musika garaikidetik abiatu zen, eta opera tradizionalaren barnean jarritako bonba eta ondorengo eztandaen emaitzei sormen maila altuenekoak deritzet.

*Gaur egun ikusgai den kulturaz hitz egiten da. Musika bigarren planoan geratu al da?*

Galderak berak formazio tradizionala izan genuenon aurreiritziak erakusten ditu. Historian zehar musikak ez du inoiz izan gaur egun duen garrantzia. Guretzat garrantzizkoa zen musika da desagertu dena; beste genero guztiak sekula baina biziago daude. Abangoardiako sormenaren trena musikagile tradizionalak galdu egin genuen eta ardura gurea besterik ez da. Adibide bat jarriko dut, ea inor eskandalizatzea lortzen dudan. 80ko hamarkadan Mendebaldeko Alemanian misilak jarri zirenean krisi beldurgarria sortu zen Sobietar Batasunarekin Europaren begirada izoztuaren aurrean. Nork idatzi zuen une hori deskribatzen duen musika? Sting-ek: *Russians*. Besteak beste Prokofiev-en gai bat erabili eta herriko musika eta musika kultuaren kategoriak XIX. mendekoak direla erakutsiaz. Non zeuden musikagile "kultuak"? *Polimorfismo estructural IV* bezalako tituluak lantzen. Une honetan bizi dugun globalizazio inhumano honen aurkako musika nondik dator? Hara: azken entzundakoa... David Bisbalek egin du! *Torre de Babel* kantaren *reggaeton mix* deritzon bertsioa entzutea gomendatzen dut ([http://www.batanga.com/David\\_Bisbal\\_Wisin\\_&\\_Yandel\\_Torre\\_De\\_Babel\\_/2BB95DAE-DC4D-4D3C-A5AB-B48681E1C199.htm](http://www.batanga.com/David_Bisbal_Wisin_&_Yandel_Torre_De_Babel_/2BB95DAE-DC4D-4D3C-A5AB-B48681E1C199.htm)). Rap, flamenkoa, ekialdeko musika... eta poesia antisistema. Ba al dago horrelako ezer eremu "kultuan"? Ez naiz ari, noski, kalitate estetikoari buruz hizketan, baizik eta errealitate orokorreriko loturaz.

*Zer moduz ikusten da Erreterria Madriletik?*

Geroz eta herrimin handiagoarekin. Eddaren gauza izango da. Gainera, Madril oso hiri ezatsegina da, energia asko zurruputzen dizuena-takoa. Oso gustora itzultzen naiz Erreteriarara... *musika hoiak utzita*.